

## BILBOK GAITZESPENA AGERTU DIO INDARKERIA MATXISTARI

- Azaroaren 25aren kariaz, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen baita, Bilboko Udalak ostera ere antolatu du irakurketa instituzional eta parte hartze bidezko bat Arriaga Antzokian.
- Ekitaldi honetan ez dute horrenbeste lagunek parte hartu, egoera sanitarioa dela-eta, baina Udaleko eta gizarte entitateetako ordezkarien parte hartza izan da.
- Uria morez tindatu da, Udalaren egoitza batzuetan eta besteetan puntu morearen ikurra ipinita, eta, gaur arratsaldean, Udalaren eraikin nagusia, udaletxea, kolore horrekin argiztatuko da, Bilbok emakumeenganako indarkeria horren aurka duen jarrera irudikatzeko.

(Bilbo, 2020ko azaroaren 25a).- Bilboko Udalak, **Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren** kariaz, irakurraldi instituzional eta parte hartze bidezko bat antolatu du gaurko, azaroak 25, herritarrok batzearren indarkeria matxistaren kontrako gaitzespen irmoan; “axola handiko kontua da Bilborentzat indarkeria matxistaren kontrako gaitzespen kolektiboa agertzea, eta ikusten edo pairatzen den emakumeenganako edozein indarkeria salatzea, eta agerira ekartzea gizarte berdintasunezko bat eraikitzearen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten den borroka.”

Aldarrikapenezko ekimen hau ohikoa bihurtu da urian, eta bertan izan da buru **Amaia Arregi**, Bilboko lehen alkateordea, eta berarekin batera **Nekane Alonso**, Berdintasun Saileko zinegotzia, bai eta Bilboko beste zenbait zinegotzi ere. Gainera, agintariek agindutako neurri sanitario eta segurtasunezkoak betez, gonbidapena egin zaie **Emakumeen Udal Kontseiluko** zein **Immigrazioaren Udal Kontseiluko** kide batzuei parte har dezaten, eta baita ere **Amuge, Bizitu Elkartea, Down Sindromea Fundazioa, Bizitegi, Euskal Gorrak, Petra eta Bagabiltza** gizarte-entitateetako ordezkariei. Halaber, **Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkarteko** presidenteak eta **Maria Goiricelaya** aktoreak ere parte hartu dute.

Nekane Alonsok eman dio hasiera ekitaldiari, eta hark nabarmendu du beharrezkoa dela gizarte osoak parte hartza indarkeria matxista ezabatzeko eginkizunean, “erakundeok ezin dugu izan emakumeenganako indarkeriaren kontrako borrokan ageriki parte hartzen duten bakarrak, arduradun bakarrak. Beharrezko da guzion lana batzea, sare lanean jardutea, adostasuna eta ekintza bateratua bilatuz, arrakasta handiagoa izatearren indarkeria hori ezabarazteko eginkizunean. Eta, gainera, lan hori legitimitatez, eraginkortasunez, kalitatez, agerikotasunez eta koherenziaz hornitu behar dugu”.

Beste alde batetik, **Amaia Arregik EUDELek** (Euskadiko Udalerrien Elkartea) **proposatutako erakunde-adierazpenea** irakurri du; aurten, agiri horretan, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioan emakumeek aurre egin behar izan dieten inguruabarrik nabarmendu dira. “*Pandemiak eragindako egoera honetan, arreta jarri behar dugu etxe barruan, lantokietan, bizimodu egiteko lekuetan indarkeriari aurre egin behar izaten*

*dioten emakume eta neskatoengan, bizirik irauteko iharduki beharrean aurkitzen diren emakume eta neskatoengan. Egoera horretan, lanean jarraitu beharra dugu, haien bakartzea, babesgabezia eta ikusezintasuna eragozteko inguruabar egokiak sortzearen. Gizartearen ezagutza eta elkartasun osoa merezi dute”, adierazi du mintzaldian.*

Hainbat testu eta argitalpen zatiak, poemak, diskurtsoak eta abestiak irakurri dira, denak emakumeenganako indarkeriaren gaitzespenari edo andrazkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunari buruzkoak.

### **BILBO, MOREZ**

Aste honetan zehar, uria morez tindatu da, ohiko puntu morearen ikurra jarriz udal egoitza batzuetan eta besteetan. Udalaren eraikin nagusian, udaletxean, balkoian ipini dute puntu morea, eta arratsaldean kolore horrekin argiztatuko da eraikina, Bilbok emakumeenganako indarkeria horren aurka duen jarrera agertzeko.

### **BEHAR BADUZU, EZ IZAN ZALANTZARIK ETA ESKATU LAGUNTZA PROFESIONALA:**

- Informazio eta orientazio espezializatua
- Lagun egite soziala
- Laguntza psikologikoa
- Aholkularitza juridikoa
  
- Hitzordua eska dezakezu 944204838 telefonoan edo [berdintasuna@bilbao.eus](mailto:berdintasuna@bilbao.eus) helbide elektronikoan.

### **LARRIALDIA izanez gero:**

- Udaltzaingoa: 092
- Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua – GLUZ: 944701460

## BILBAO MUESTRA SU RECHAZO A LA VIOLENCIA MACHISTA

- Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres, el Ayuntamiento de Bilbao ha organizado una nueva edición de la lectura institucional y participativa en el Teatro Arriaga.
- Este acto, más reducido en número de participantes por la situación sanitaria, ha contado con representantes municipales y de entidades sociales.
- La ciudad se ha teñido de morado con la colocación del simbólico punto lila en diferentes sedes municipales y, esta tarde, el edificio principal del Consistorio será iluminado de ese mismo color para visibilizar el posicionamiento de Bilbao en contra de la violencia hacia las mujeres.

(Bilbao, 25 de noviembre de 2020).- El Ayuntamiento de Bilbao de Bilbao, en el marco del **Día Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres** hoy, 25 de noviembre, ha organizado una nueva lectura institucional y participativa con el objetivo de unir a la ciudadanía en una repulsa unánime a la violencia machista, “*es muy importante para Bilbao mostrar el rechazo colectivo a la violencia machista, así como denunciar cualquier manifestación de violencia contra las mujeres que se sufra o presencie y visualizar la lucha por la igualdad de mujeres y hombres de cara a la construcción de una sociedad igualitaria*”.

Esta iniciativa reivindicativa, ya tradicional en la Villa, ha estado presidida por **Amaia Arregi**, Primera Teniente de Alcalde de Bilbao, acompañada de **Nekane Alonso**, Concejala de Igualdad, así como de otras Concejalas y Concejales bilbainos. Además, respetando las medidas de seguridad y sanitarias recomendadas por las autoridades, se ha invitado a participar a una representación del **Consejo Municipal de Mujeres** y **Consejo Municipal de Inmigración**, y de entidades sociales como **Amuge**, **Bizitu Elkarte**, **Fundación Síndrome Down**, **Bizitegi**, **Euskal Gorra**, **Petra** y **Bagabiltza**. También han tomado parte la Presidenta de la **Asociación de Comerciantes del Casco Viejo** y la actriz **Maria Goiricelaya**.

El acto ha comenzado con **Nekane Alonso**, quien ha incidido en la necesidad de contar con la implicación conjunta de toda la sociedad para eliminar la Violencia Machista, “*las instituciones no podemos ni debemos de ser las únicas responsables e implicadas visibles en esta lucha Contra la Violencia hacia las Mujeres. Necesitamos la implicación de toda la sociedad. Necesitamos aunar el trabajo que todas y todos realizamos, crear un trabajo en red, buscando consenso y acción conjunta para conseguir mayor éxito en la erradicación de dicha Violencia. Y además dotar a esta labor de legitimidad, eficacia, calidad, visibilidad y coherencia*”.

Por su parte, **Amaia Arregi**, ha realizado lectura de la **Declaración Institucional propuesta por EUDEL** (Asociacion de Municipios Vascos), donde este año se han destacado las circunstancias a las que se enfrentan las mujeres en esta crisis sanitaria

del COVID-19. “En la situación generada por la pandemia, debemos poner el foco en las mujeres y niñas que enfrentan violencia en sus hogares, en sus trabajos, en sus espacios de vida están resistiendo por su supervivencia. En este contexto debemos seguir trabajando para generar las condiciones adecuadas para evitar su aislamiento, desprotección e invisibilidad. Se merecen todo el reconocimiento y solidaridad de la sociedad”, ha señalado durante su intervención.

Las demás personas participantes han leído textos y fragmentos de publicaciones, poemas, discursos y canciones centradas en el rechazo a cualquier tipo de violencia ejercida hacia las mujeres o la desigualdad entre mujeres y hombres.

### **BILBAO, DE MORADO**

Durante esta semana, la ciudad se ha teñido de morado con la colocación del simbólico punto lila en diferentes sedes municipales. El **edificio principal del Ayuntamiento ha colocado el punto morado en su balcón y esta tarde el edificio principal del Consistorio será iluminado de ese mismo color para visibilizar el posicionamiento de la ciudad de Bilbao en contra de la violencia hacia las mujeres.**

### **SI LO NECESITAS, NO DUDES EN PEDIR AYUDA PROFESIONAL:**

- Información y orientación especializada
- Acompañamiento social
- Atención psicológica
- Asesoramiento jurídico
  
- Cita previa en el teléfono 944204838 o a través del email [berdintasuna@bilbao.eus](mailto:berdintasuna@bilbao.eus).

### **EN SITUACIONES DE URGENCIA:**

- Policía municipal 092
- SMUS (Servicio Municipal de Urgencias Sociales) 944701460